

Amesgaiztoaren Olerkaria

Filmak

■ **Eraserhead (1977).**

Aktoreak: Jack Nance, Charlotte Stewart, Laurel Near, Henry Spencer bereziaren baitan hazi da emazteak abandonatu duen haur estrainioa, eta bururik gabe utzi du. Fabrika batean borragomak egiteko erabiltzen dute Henryren burua. Surrealista, kafarra, onirikoa eta arraroa oso. Kultuko filma da.

■ **The Elephant Man (1980).**

Aktoreak: Anthony Hopkins, John Hurt, Anne Bancroft. Frederick Treves zirujauak munstro itxura duen gizon bat zirkutik atera eta Londresko ospitalera eraman du. John Merrick-en nahigabeak, ordea, ez dira amaitu. «Ez naiz piztia bat, gizaki bat naiz» oihua da haren sofrimenduaren isla. Tristeia baina ederra.

■ **Dune (1984).**

Aktoreak: Kyle MacLachlan, Francesca Annis, Max Von Sydow. David Lynch zinemagileak Frank Herbert idazlearen obra erakargarria zientzia-fikziozko film miragarri bilakatu zuen. Iraultzailea, mistikoa eta ederra oso. Garaiko kritikak ez zuen ulertu. Gizaki modernoaren noraezaren metafora irudimentsua. Film madarikatua.

■ **Blue Velvet (1986).**

Aktoreak: Kyle MacLachlan, Isabella Rosellini, Dennis Hopper, Laura Dern, Jeffrey gazteak belarri bat aurkitu du. Ebakitako belarri horrek Dorothy Vallens abeslariarekin zerikusia omen du. Amesgaiztoak, pop-rock musika, suspentsezko thriller iluna, sexua eta biolentzia uztartzen ditu. Lynchen maisulanik biribilena, beharbada.

■ **Wild at Heart (1990).**

Aktoreak: Nicolas Cage, Laura Dern, Willem Dafoe, Isabella Rosellini. Sailor kartzelatik irten da, eta maite duen neskaarekin -Lula

xaloarekin- ihes egin du. Lularen amak, ordea, banatu nahi ditu. Reindeer droga trafikatzailer arriskutsuak, berriz, prezioa ipini die maitaleen buruei. Biolentzia gordina, eszena hunkiberak eta surrealismoa.

■ **Twin Peaks: Fire Walk with Me (1992).**

Aktoreak: Sheryl Lee, Ray Wise, Kyle MacLachlan, Kiefer Sutherland. *Twin Peaks* telesail bikainaren arrakasta amaitu zenean, Laura Palmer ederraren istorio ankerra zinemara eraman zuen Lyncheak. Onirikotasun eta iluntasun handiegiz atundu zuen filma, ordea. Porrota izugarria izan zen.

■ **Lost Highway (1997).**

Aktoreak: Bill Pullman, Patricia Arquette, Balthazar Getty. Fred saxofoi jolea kartzelan sartu dute emaztea hiltzeagatik. Hurrengo egunean, baina, Pete mekanikoa esnatuko da Freden zeldan. Petek maite duen emakumeak Freden emazte erailaren antz handia du. Konplexua, klaustrofobikoa, amesgaizto iluna. Bikaina.

David Lynch kultuko zinema zuzendariaren obra amesgaizto ilun, surrealista eta iradokitzailez osatua dago.

● Pintura, musika eta irudia ezin hobeto uztartzen ditu bere unibertso oniriko erakargarrietan.

■ **inaki lazcano**

Irudi ilun eta surrealista iradokitzailez dago atonduta David Lynch kultuko zinemagilearen filmografia berezia. Francis Bacon maite duen pintore irudimentsuaren pintzelada iheskorrez daude ziprztinduak errealtatearen eta onirikotasunaren arteko muga zirriborotsuak. Errepide galdua noraezaren dabilen intelektuala- ren ezinegonaren metafora ilunbetsua baita.

Bost urte luze eta gordin behar izan zituen David Lynch gazteak bere estreinako filma sortzeko. *Eraserhead* estrainioak, ordea, ez zuen harrera onik izan estreinatu zen sasoian. Cannesko eta New Yorkeko zinemaldiak errefusatu egin zuten eta oso kritika kaskarrak jaso zituen. Apurka-apurka, baina, kultuko film bihurtu zen. Hala, Stanley Kubrick handiak ere David Lynchen estreinako filmarekin luratuta zegoela aitortu zuen.

Eraserhead David Lynch zinema zu-

zendariaren obrarik pertsonalena eta harrigarriena da, ezbairik gabe. «Fildelfian bizi izan nintzen auzoan ezagutako giro bereziaz kutsatuta dago. Fabrika baten eta auzune industrial baten arteko mundua zen. Nabardura eta atsekabe txikiz betetako leku ttipi. ezezagun, arraro, isil eta galdua. Eta jendeak iluntasunean egiten zuen borroka. Muturrean bizi dira eta hori da gustuko dudana jendea».


The Elephant Man ederrarekin arrakasta erdietsi zuen arren, *Dune* zientzia-fikziozko ekoizpen erraldoi eta barrokoak porrotik latzenean hondoratu zuen Lynch bihurria. «*Dune* estudio handiko film baten antzeko zerbaite zen. Amaierako muntaia ez zegoen nire esku. Eta, piskanaka-piskanaka, subkontzienteki, amore ematen ari nintzen. Finean, banekielako ezin nuela nahi nuena egin eta egin behar nuena ez nuela egin nahi. Erdibidean galdu nintzen. Oso leku triste batean».

■ **Askatasun osoz sortzea amets**


● *Blue Velvet* eta *Wild at Heart* bikainei esker, kritikarien zein ikusleen babesa berreskuratu zuen. *Twin Peaks* telesail finaren bitartez, berriz, ikusleria zabal batera iritsi zen lehen aldiz. Zineman nahiz telebistan arrakasta lortzeaz gain, pintore eta argazkilari bezala ere oso ezaguna egin zen. Baita komikigile gisa ere. L.A. Reader-erako astero egin ohi zuen tira komikoak -*The Angriest Dog in the World*- izen baina harrera hobea erdietsi baitzuen. David Lynch zinema zuzendariaren garairik oparoena izan zen hura.

Twin Peaks: Fire Walk with Me filma telesaila baino askoz ere hertsiaagoa

Eraserhead



The Elephant Man




Wild at Heart



Twin Peaks: Fire Walk with Me



Dune



Blue Velvet



Lost Highway

